

# EGITARAUA

**9:00 - 9:15 Ongietorria eta inskripzioen erregistroa**

**9:15 - 11:15 Hasierako hizketaldia**

- **Guiomar Rovira Sancho:** Gizarte Zientzietan doktorea, Komunikazioan eta Politikan espezializatua. Gironako Unibertsitateko Zientzia Politikoen Arloko irakaslea eta Komunikazioko eta Politikako Masterraren koordinatzailea. Bere ibilbidean ikerketa eta irakaskuntza uztartu ditu, bai eta mugimendu sozial, feminista eta indigenei laguntzea ere, bereziki Latinoamerikan, bertan egin baitu bere ibilbide akademikoaren zati handi bat. Marie Skłodowska-Curie ikertzailea izan da (FEMONMETOO proiektua), eta mugimendu sozialei, sareko aktibismoari eta feminismoei buruzko hainbat lan idatzi ditu, besteak beste #MeToo. La ola de las multitudes conectadas feministas (2023-2024).
- **Enrique Javier Díez Gutierrez:** Hezkuntza Zientzietan doktorea eta unibertsitateko katedraduna. Leóngo Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko irakaslea eta "Investigación Educativa y Justicia Social" (ULE) ikertalde finkatuaren zuzendaria da. «Europa inklusibo eta demokratiko baten eraikuntza faxismoaren eta xenofobiaren gorakadaren aurrean» ikerketa europarra zuzentzen du. 2023an, Andaluziako Gurasoen Konfederazioaren CODAPA saria jaso zuen, hezkuntza publikoa defendatzeagatik eta pedagogia inklusiboa, demokratikoa eta guztion onera bideratua sustatzeagatik.

**Moderatzailea:** Silvia Felipe González (Intered)

**11:15- 11:45 Kaferako etenaldia**

**11:45 - 14:00 Esperientziak**

- **Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte - AMUGE:** bere helburu nagusia Euskadiko emakume ijitoak sustatzea eta ahalduntzea da. Elkartearen ekintza-ildoetako bat ikastetxeetan hezkidetzari, ijitoen feminismoari, ijitoen aurkako mugimenduei eta orientazio akademiko ez-sexistari buruzko prestakuntzak ematera bideratuta dago. Nazio Batuek nabarmendu egin dute Ijito Herriaren Historia eta Kultura DBHn integratzeko elkartearen programa.
- **Novact:** gatazkak eraldatzeko eta bakea indartzeko Bartzelonako elkarte bat da. Testuinguru ahuletan aldaketak bultzatzen ditu, eremu zibikoa, giza segurtasuna eta justizia mota desberdinak babesten dituzten politiken bidez. Era berean, eskuin muturraren gorroto-diskurtsoaren erabilera aztertzen du, eta horri aurrea hartzeko jardunbide egokiak zabaltzen ditu.
- **Martxoak 3 Elkarte:** 1976an Gasteizen izandako sarraskian zaurituek, kaltetuek eta biktimen senideek osatutako erakundea da. Beren zeregin nagusia da egia, justizia, erreparazioa eta halakorik berriro ez gertatzeko bermeak lortzea, Espainiako polizia armatuak egindako krimenen zigorgabetasunaren aurrean.

**Moderatzailea:** Trini Anguita Castillo (Mundu Bakean)

**14:00- 15:00 Mokaduak jateko tartea**

**15:00- 16:45 Tailerrak**

**16:45- 17:00 Jardunaldien ebaluaketa**